



Mari Kruz Intxausti
Elgoibar Ikastola (Elgoibar)
1. Saria Lehen Hezkuntza -Fisio- (Ikaseia)
Argazkiak: Sara Santos

“Kursaaleko Jaialdia oso ona iruditu zitzaidan”

Mari Kruz Intxausti Lehen Hezkuntzako kategorian –Fisio- lehen saria lortu duen Elgoibar Ikastolako 15 ikasleko taldearen arduraduna izan da.

- Nola baloratzen duzue, orokorrean, Kosmodisean parte hartu izanaren esperientzia?
- *Oso positiboki.*
- Zure iritziz, zer interesatu zaie gehien ekimen horretako ikasleei?
- *Hiru aplikazioetan aritzea asko gustatu zaie.*
- Zein iritzi izan dute neska-mutilek lortutako emaitzei buruz?
- *Oso ona.*
- Zure ustez, ikasleentzako zein balio positibo eskura daitezke Kosmodisean parte hartuz?
- *Talde-lanaren garrantzia, hau da, lanak osagarriak izatea eta ez dena denek egitea. Eta aplikazio desberdinetan jardutea.*



- Zein da 2007-2008 Kosmodiseatik azpimarratuko zenukeen gauzarik onena? Zein alderdi hobetu beharko lirateke, zure ustez?
 - *Jaialdia oso ona iruditu zitzaidan. Hobetu, ez dakit, baina denbora aldetik justu xamar ibili gara. LHko ikasleei gauza asko azaldu behar zaie, oraindik ez dituztelako aplikazioak ezagutzen.*
 - Kosmodiseako datorren edizioan parte hartuko duzu?
 - *Bai, dudarik gabe.*
 - Ideiak, iritziak, iradokizunak, oharra, kritikak...
 - *Autoebaluazioaren ideia ona izan arren, talde-lanaren parte delako, gero denok notarik altuena ematen diogu gure lanari...*
- Dena den, orokorrean, oso baikor baloratzen dut guztia eta jaialdia oso interesgarria*

